

ORAIN ETA HEMEN: UDALTZAINEN GAUEKO TXANDA

ARKO

Arrasate

P R E S S

2001.eko
otsailaren 16a
529. zenb.



Hala, Madril!

Dragon Blanco zale taldea Arrasaten

Edertasunaren Gida


CARMEN

Ile apaindegia Solariuma

Ferrerias, 50
ARRASATE
Tel.: 943 79 03 63

Jose Antonio

GIZONEZKOEN
ILE APAINDEGIA



Otalora lizentziatua, 22-behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

SUSI

ILE APAINDEGIA

Garibai, 3-etxabea
Tel.: 943 79 50 27

ILEA

Ferrerias, 14. 943 79 87 62

Lurrindegia *perfumeria*

ZARRAOA

Kanpandorpea, 4
Tel.: 943 79 12 19

- ▲ Larruzko artikulua
- ▲ Bisuteria
- ▲ Opariak

*Aholkularitza
estetika eta
makilajea.*

LANCASTER GUERLAIN Elizabeth Arden

JADE

ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

Miren Garai

ESTETIKA ZENTRUA

Aguinaga Doktorea (1.806)

LODITASUNA ETA BARIZEAK

- Zimurretako CO² lehenengo laserra (Barra-kodea)
- Ezpainen handitzea
- Liposukzioa edo lipoeskultura
- Bularren txikitzea eta handitzea
- Aurpegiko orbanak
- Gorputzerako LIPOFIT TAC tratamenduak
- Indarberritze tratamenduak
- Depilazioa argizari hotzari eta beroz
- Depilazio elektrikoa
- Aurpegiaren garbiketa
- Makilajea
- Solariuma

LASER BIDEZKO DEPILAZIOA MEDIKUAREKIN Zarugalde 23, 2. ezk. Tel: 943 79 96 90

ML

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

Zure zerbitzuak iragarri
nahi izanez gero, deitu
943 71 23 91 telefonora

Lore

Olarte, 10 • ARRASATE • Tel: 943 79 52 50

Lurrindegia eta estetika zentrua

KORA NEAL Ayer HR CLARINS plus BIOTHERM VALMONT



urteurrenak

Roneoko langileak greban

■ 53. zenb.
(1990-02-23)



Roneoko langileek greba mugagabea egitea erabaki zuten, enpresa zuzendaritzak Oscar Marco kaleratu ondoren. Langileek adierazi zuten, euren lankidea berriro lanean ikusi artean ez ziren lanpostuetara itzuliko.

Itzultzaileak osoko bilkuran

■ 53. zenb.
(1990-02-23)

Hiru ordu iraun zuen udal aurrekontuak onartzeko osoko batzarrak, eta Jose Luis Mendiarrak zinegotzi sozialistak bat-bateko itzulpen sistema exijitu zuen.

Xakea irratiz

■ 53. zenb.
(1990-02-23)

San Andres xake taldekoek ekimen bitxia abiarazi zuten.

Aretxabaletakoekin ados jarri eta irratiz bidalitako mezuen bidez jokatu zituzten bi partida.

Futbol emaitza: 32-0

■ 53. zenb.
(1990-02-23)

Eskubaloiko emaitza bat ematen du, baina futboleko lortu ziren 32 gol horiek. Arrasateko eta Soraluzeko gazteak ibili ziren nor baino nor, eta dirudienez, Soraluzekoek entrenamendu falta zeukaten.



besteek esana



Kontzertu ekonomikoak foruen deuseztapenean du jatorria, eta foru haziendak estatuko hazienda sisteman sartzeko ahaleginean.

... Ondorioz, kontzertuaren jatorri legala 1876ko legean dago. Horrek, estatuko erakundeetan eta foru lurraldearen artean harreman finantzario eta zergazkoak finkatzeko beharra ekarri zuen.

... Hasiera baten, kontzertu ekonomikoak luzera mugagabea eduki beharko luke. Ez da zilegi denboran muga jartzea.

Jose Mari Aizega

MONDRAGON UNIBERTSITATEA

EUSKONEWS & MEDIA

(2001-02-16)



ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzazu Lagunilla eta Natalia Martinez. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gairizarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90). **Disenatzailea:** Maite Rementia. **Asteburuetako berriemaileak:** Lorea Aguiriano. **Banaketaren arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Franko konterlatua:** Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSEK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azala: Dragon Blanco taldea.



Arrasateko Udaleren laguntza



Gipuzkoako Foru Aldundiren laguntza



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza

aurkibidea

- Lehen begiratu 3
- Txutxumutxuak 10/11
- Eskola Kirola 18
- Asteko hitzorduak 4
- Aurrez aurre **Diego Garcia** 12/13
- Zaldibar areto futbol. 19
- Inkesta 5
- Kulturaren txokoa 14/15
- Uhinetan barrena 21
- Astearen erreposoa. 6
- Kirolak jokoan. 17
- Orain eta hemen. 7/9
- Foto zaharra 22



ZERBITZUAK

Eritxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Igualatorioa 943 71 26 91
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
 Gurutze Gorria 943 76 55 76
 DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
 Astelehenetik
 larunbatera 17:00etatik 08:30era
 asteburu eta
 jai egunetan egun osoa
 Arrasate
 Astelehenetik
 ostiralera 08:00etatik 17:00etara
 Larunbatetan 09:00etatik 17:00etara
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 52 52
 • Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulanziaz 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia
	(euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Larunbata	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia
	(euskaraz)
Igandea	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Larunbata	Igandea
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron
	(euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jai egun bezpera	Igandea
eta larunbata	12:00 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)	

kulturaren ganean

Udal liburutegiak eta AEDk, Arrasateko kultura eskaintzaz gogoeta egiteko jardunaldia

antolatu dute. Otsailaren 17an izango da, goizeko 10etan hasita, Monterronen.

karabana langraitzera

Otsailaren 17rako Langraitzera auto-karabana antolatu du Gazte Ekimenak, Joseba Gari-
 taonandia eta Pedro Guridiri elkartasuna adie-

razteko. Arbolapetatik irtengo dira, goizeko 10etan.

kultura elkarteei deia

Udaleko Kultura Sailak dei egiten die herri-
 ko kultura elkarte guztiei, diru laguntzak jaso-

tzeko eskakizunak egiteko. Martxoaren 15a arte izango da epea.

udalpeko bazkideei deia

Udalpe elkarteak batzar orokorra egingo du
 otsailaren 21ean, 19:00etan, euren egoi-
 tzan. Otsailaren 18an hildako bazkideen ome-

nezko meza izango dute, parrokian, 11:00etan.

oteiza ezagutzuz

Zahar-Berriko berba-lagunak Donostiara joan-
 go dira otsailaren 17an. Jorge Oteizaren era-

kusketaren bisitaldi gidatua izango dute. 09:30ean elkartuko dira Arbolapetan.

1934ko kintoak

Martxoaren 10ean, 1934an jaiotako kinto-
 en ospakizuna izango da. Lehenik, meza izan-
 go dute, eta gero, bazkaria Udalpe elkarte-

an. Izen ematea Bengoa tabernan egin beharko duzue, martxoaren 7a baino lehen.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 16

• Azkoaga, Ferrerías

Zapatua, 17

• Azkoaga, Iturrioz

Domeka, 18

• Korkuera, Aranbarri

Astelehena, 19

• Irizar, Erguin

Martitzena, 20


• Amezua, Santa Marina

Eguaztena, 21

• Zabala, Zarugalde

Eguena, 22

• Aurora Ruiz, Maala



MARKO-JARTZEAK

ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE

Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

- Diagnostika-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztietako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonen laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.

Ignazio Zuloaga kalea, 10 • Tel: 943 79 48 77 • ARRASATE

Zure ustez, garrantzitsua da tamaina?

Espainiako Andrologia Elkarteak zakilaren neurri estandarra zehaztu du: 13,58 cm



Carlos Muñoz
(28 urte)
Langilea

Niri berdin zait, baina uste dut hori emakumeek erantzun beharko luketela.



Juan Carlos Barkero
(32 urte)
Langilea

Emakumeendako garrantzitsua da, bai, baina gizonendako ez.




Migel Angel Iñurrieta
(37 urte)
Langilea

Nireak 16 bat zentimetro neurtzen du, baina tamaina ez da garrantzitsua.



Amanda Sanchez
(18 urte)
Ikaslea

Ez, ez da garrantzitsua.



Ander Moraza
(21 urte)
Langilea

Zertarako den ikusi behar, je, je... Baina, ez, ez da garrantzitsua...



Idoia Altuna
(41 urte)
Etxekoandrea

Tamainak ez du zerikusirik.



Gloria Gonzalez
(36 urte)
Langabea

Ez, ez du garrantzirik.



Alicia Delgado
(29 urte)
Etxekoandrea

Ez da garrantzitsua, ondo ibiliz gero...

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

Sukalde altzarien fabrika eta horman sartutako armairuak



- Fabrikako prezioa
- Erakusketa zabala. 2 solairu
- Kalitatea eta diseinua
- Azken berrikuntzak

Kataide Industrialdea, 6. pabilioia
ARRASATE • Tel.: 943 71 25 08

USTEAK USTE

Zer datorren

Hurbileko informazioaren esparrua euskararentzat irabazteko jaio zen Arrasate Press. Baita bere ondoren, eta bere ondorioz, jaio ziren beste 50 aldizkariak ere. Debagoienean zazpi dira euskarazko herri aldizkariak. Aramaiok eta Gatzagak ez dute, beste guztiek, bai. Bi astekari dira, bi hamabostekari, hiru hilean behingoak.

Guztien artean lortu dute gurean toki aldizkariaren garapena euskararen mesedera-ko izatea. Eta euskarazko irakurle mordoak sortu dute. Lan ona izan da. Segida behar du, baina. Molde berriz, eragingarriago izateko. Maiztasun handiagoz, lehiakor bihurtzeko.

Egunerokoa dugu amets. Eta premia. Egunero irakurtzen dugulako. Eta egunero euskaraz irakurtzen dugunean izango delako euskara gurean normala.

Egunerokora bidean sortu dugu GOIENKARIA. Oraingoz, eskualdeko atal komuna. Aurrerago, maiatzean, barruan izango ditu herrietako aldizkariak. Denak astekari. Lehen baino informazio gehiagorekin. Hobeto landuta. Datorren astean xehetasunak.

Mikel Irizar

astea bi hitzetan

■ EAren txostena

Eusko Alkartasunak argitaratutako txostena egunean, otsailaren 8an, aurkeztu zen Mondragoen. Nekane Altzelai EAko kideak aurkeztu zuen, *Euskal Herrirako marko politiko berri baterantz* izenarekin. Hiru atal nagusi ditu: lehenengoan, gaur egungo egoera politikoaren azterketa egiten da. Bigarrenean, akordioa lortzeko pausoak zeintzuk diren zehazten da, eta hirugarrenean, teorizazio politikoak egiten da.

■ Ezbeharrak Ferreriasen

Ferrerias kaleko hirugarren zenbakiko etxebizitza batek su hartu zuen pasa den egubakoitzean. Barruan 16 urteko neska gaztea zegoen, eta sutearen ondorioz, urduri jarri eta bere burua bota zuen leihotik.

Suhiltzaileak, udaltzainak eta ertzainak gerturatu zirenerako neskak bere burua bota zuen leihotik. Baina, begira zegoen ertzain bat azpian jarri eta neska harrapatzea lortu zuen, haren kolpea arinduz. Biak, ertzaina eta neska, ospitalera eraman zituzten. Harrigarria bada ere, neskak ez zuen hezur bakar bat ere apurtu, eta zapaturako neska eta ertzaina etxean ziren.

■ ETaren lapurreta

Zapatuan, Udalauto enpresan, trokelatzeko makina bat eta 300 bat matrikula lapurtu zituzten. Bi lagun armatuk Udalauto enpresako langile bati eskuak lotu eta pabilioi barruan itxi zuten. Gero, trokelatzeko makina bat eta zenbaki bariko 300 bat matrikula ostu zituzten, eta enpresan bertan lapurtutako Seat

Inca furgoneta baten eraman zituzten harrapatutakoak.

Lapurreta gertatu eta hiru ordu ingurura, ETaren izenean mintzatu zen pertsona batek telefono deia egin zuen DYARA. Bitartean, Udalauto langile atxabaltarrak metxero batekin askatzea lortu zuen, eta ertzaintzari deitu zion gertatutakoaren berri emateko.

Arrasaten ostutako furgoneta handik gutxira aurkitu zuen Ertzaintzak Zalduspe kalean. Herrizaingo Sailak jakinarazi zuenez, ibilgailua zakur trebatuekin ikuskatu zuten eta lehergailurik ez zegoela egiaztatu zuten.

Arratsaldeko zortzi eta laurdenak igarota, Ertzaintza oraindik enpresan zegoen, lapurretaren inguruko ikerketak egiten.



■ Zubia behera

Nafarroa etorbidean, Deba erreka gainean, egiten ari diren zubia erori zen egunean, otsailaren 8an. Udaltzaingoaren esanetan, hormigoia botzatzen ari zirela eskoramenduak huts egin zuen eta ezin izan zion zubiari eutsi. Zorionez, ez zen inor zauritu; hori bai, kalte materialak handiak izango dira, eta istripuaren ondorioz, lanak dezente atzeratuko dira. Zerrajera parean biribila egin gura du udalak, eta horretarako dabilta zubiaren egiten.

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikan erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

M

MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 943 71 24 25

Aurre-erretiratuei eta alargunei Appalde elkartean sartzeko deia

Debagoieneko aurre-erretiratu eta alargunen elkarte, Appalde, Mondragoen aurkeztu zen pasa den astean. Aurre-erretiratu eta alargunen eskubideak eta interesak babestea da elkartearen

helburua. Eta hori lortu arte, hainbat ekimen egingo dituztela iragarri zuten.

Jende ugari hurbildu zen Arrasaten egindako hitzaldira, eta antolatzaileak oso pozik geratu ziren. Euren esanetan,

hitzaldiak izan zuen harrerak garbi utzi du Arrasaten beharra badagoela. Hitzaldia bukatu bezain laster, 25 arrasatearrek eman zuten izena elkartean esku hartzeko.

EKIMENAK

Dagoeneko, aurre-erretiratu eta alargunek Madrilen bi manifestazio egin dituzte eta Bilbon beste bat. Horrez gain, alderdi politiko eta sindikatuetako ordezkariekin ere izan dira.

Appalde 1999ko uztailearen 14an sortu zen. Gaur egun, 128 bazkide ditu: gehienak, oñatiarrak, eta erdiak baino gehiago, alargunak.

Inork taldeko partaide izan gura badu, 943 78 05 26 telefonora deitzea besterik ez du.



Pasa den astean aurkeztu zen Appalde Mondragoen.

Euskara bekak aukeran

Mondragoeko Udalak euskara ikasteko beka edo diru laguntzak eskuratzeko epea ireki du; hortaz, interesa duenak udalera joatea besterik ez dauka. Iaz, adibidez, 21 beka eman zituen udalak. Azken urteotan moduan, bestetan baino lagun gutxiagok eskatu zuten laguntza. Euskara batzordeko teknikariak, Jose Felix Diaz de Tuestak, adierazi digunez, "aspaldian, urtetik urtera geroago eta ikasle gutxiagok eskatu dute beka. Horren arrazoia da Mondragoe eta inguruan langabezia txikia dagoela. Horrelako kasuetan, familien egoera ekonomikoa ona izaten da, eta ez dute laguntzarik eskatzen, beharra dutenendako pentsatuta dago-eta beka sistema.

Badator Gida 2001

Labetik irten berri da eta gaur hasi dira banatzen ARKO-ren aurtengo gida berria. 11.600 ale atera dira, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza eta Leintz-Gatzagan banatzeko.

Urteroko edukiez gain, aurten, gidak eskaintza zabalagoa izango du: adibidez, autobus orduetegiaren berri ere emango du.

Gidaren banaketa parebat astean egingo dute. Tarte horretan jasotzen ez duenak 943 71 23 91 telefonora dei dezake edo ARKOK Cerrajeran duen egoitzara joan daiteke.



Mundukideren Truke programa

Joan den urteko esperientzia aberasgarria ikusita, Mundukide Fundazioak erabaki du martxoan Truke programa antolatzea. Aurten, gainera, 13 partaide etorriko dira, iaz baino bost gehiago. Ekuador, Bolivia, Venezuela, El Salvador, Guatemala eta Brasildik etorriko dira, guztiak ere, tokian tokiko garapenarekin lotutako elkarteetako ordezkariak.

HELBURUAK

Garapen komunitarioako esperientzien trukea indartzea da Truke Programaren helburua. Horretarako, lankidetzan oinarritutako hartu-emanak bultzatzen ditu, beti ere, Hirugarren Munduko herrialdeen

esperientzietatik ikasi eta nor bere esperientziak kontuan hartuta, ahalik eta gehien irakasle teko asmoarekin.

Hiru dira ildo nagusiak: kooperatiba arizmendarren esperientzia eta mugimendu kooperatiboaren gainean sortutako egitura komunitarioen esperientzia transmititzea; MUko kideek ematen duten garapen komunitarioaren gaineko bizipenetatik ikastea; Hirugarren Munduko ekarpenak ezagutaraztea eta erakunde kooperatiboekin lankidetzatza hitzarmenak egitea.

Helburu horiek lortzeko, zenbait ekimen egingo dira: hitzaldiak, kooperatibetara bisitak, mintegiak... guztia, martxoan hasita.

Markuleteko bidea konpontzekotan

Markulete inguruan egiten dabilzan urbanizazio lanen barruan, Alecopetik Eguzki Dorreraino doan errepide zatia konponduko dute. Asfalto berrituko dute, ondoko berdeguneak txukundu eta espalo berriak egingo dituzte. Horrekin batera, errepidearen albo bietan autoak aparkatzeko 60 bat aparkaleku egitea ere jasota dago proiektuan.

ALEGAZIOAK

Proiektu hori jendaurrean izan da orain arte, alegazioak jasotzeko. Aurkeztutako alegazioen artean, Gipuzkoako Gutxituen Elkarteak aurkeztutakoak daude. Lan horrek egiteko orduan gutxitu fisikoek beharrak ere kontuan hartzea eskatu du elkarte horrek, eta onartu egin zaio eskaera; hortaz, gutxitu fisikoendako traba barik egingo dira lanok.

Ia 80 milioi pezetako inbertsioa egingo da lan haue-tan, eta Markuleteko gainontzeko urbanizazioa moduan, lur haien jabeen artean ordainduko dira.

Lastertasun Handiko Trena ez da behar, herritarren ustez

Horixe da mondragoetarrek Lastertasun Handiko Trenaren gainean pentsatzen dutena. Herriarendako ez dela onuragarria izango ere uste dute, eta inbertsio garestiegia dela. Udalaren Ingurugiro sailaren ekimenez, ingurumenaren gain herritarrei egindako galdeketa jasotako erantzunetarikoa bat da hau. Pasa den astean aurreratu genituen emaitza batzuk, eta atzo eman zen behin betiko emaitzen berri prentsaurrekoan.

HARROBIAK

Herriko harrobiez galde-tzean, ostera, erantzuna ez da hain garbia. Herritarren %40k hazkunde ekonomikoa babesten dute, eta uste dute harrobiak beharrezkoak direla herriarendako; ixtearen kontra daude. Hori bai, ingurumena babesteko beharraren aurrean, galdetutako herritarren %78k uste dute harrobiak ingurumenaren kontrako eraso bortitza direla, zatarrak



Jendearen ustez, harrobiak kaltegarriak diren arren, ez dira itxi behar.

direla, eta trabak eragiten dituztela. Bestalde, %76'8k uste dute inguru horiek berreskuratzeko neurriak hartu behar direla.

EIBAR-GASTEIZ

Autobidearen gainean emandako erantzunean, 10 herritarretik 6k uste dute autobidea herriarendako beharrezkoa dela eta egitea merezi duela, nahiz eta ingurumenari eraso egin. Hori bai, 10etik 7k uste dute ez dela

nahiko informazio eman eta oso inbertsio garestia dela. Oro har, 45-59 urte arteko herritarrak autobidearen aldekoak dira, eta 18-29 urtekoen ustez, ez da beharrezkoa.

AUTOA BAZTERTZEKO

Horrez gain, jendea prest dago autoa baztertu edo egun jakinetan autoaren erabilera mugatu edo debekatzeko. Baina, ez dago prest ingurumenaren babeserako zerga gehiago ordaintzeko.

ALDI BATERAKO KONTRATUA

MUSEOTAKO TEKNIKARIA

Arrasateko Zerrajera Saiolaneko eraikinean erakusketa industrial martxan jartzeko, urtebeterako, museo industrialetan aditua den teknikari bat kontratatu nahi da.

Aurkeztzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- Euskara: 3. HEren pareko jakintza.
- Erdi mailako edo Goi mailako unibertsitate titulua jabe izatea.
- Industria museoa abian jarri edo kudeatzearekin lotutako lan jardueretan gutxienez urtebeteko esperientzia egiaztatzea.

Interesatuak Arrasateko udaletxera etorri behar dira **otsailaren 26an, goizeko 10etan**, euskara proba eta praktikoa egiteko. Hautaketa prozesua arautzen duten oinarri-arauak Arrasateko udaleko Pertsonal sailan jaso daitezke.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

ALDI BATERAKO KONTRATUA

GIZARTE LAGUNTZAILEA

Amatasun bajaran dagoen bitartean titularra ordezkatzeko, aldi baterako lan kontratua eskaintzen da. Ordezkapena lau hilabete inguruko aurreikusten da.

Aurkeztzeko, baldintza hauek bete behar dira:

- Euskara: 3. HEren pareko jakintza.
- Gizarte Laguntzailearen titulua edo Gizarte Laneko diplomaturaren jabe izatea.

Interesatuak Arrasateko udaletxera etorri behar dira **otsailaren 21ean, goizeko 10etan**, euskara proba eta praktikoa egiteko. Hautaketa prozesua arautzen duten oinarri-arauak Arrasateko udaleko Pertsonal sailan jaso daitezke.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■

Udaltzainek gauez ere zainduko dute herria

Udalaren asmoak betez gero, aurtengo urtea bukatu baino lehen, herriko udaltzainek gauez ere lan egingo dute. Halaxe adierazi digu Jose Mari Urizar "Ametzuk", Zerbitzu Saileko buruak. Beraren esanetan, "herrian horren beharra dagoela ikusi da. Ertzaintza etorri aurretik bazegoen sereno zerbitzua. Gero, Ertzaintza etorri zenean, kendu egin zen zerbitzu hori. Baina, orain, argi geratu da Ertzaintzak bere lana duela eta udaltzaingoak gurea. Izan ere, zerbait larria ez bada gertatzen, Ertzaintzak guri ez digu informaziorik ematen, eta gauean herrian zer gertatzen den ere jakin gura dugu udalean. Lehenengo eskuko informazioa gura dugu, herria zaintzeko".



Aurten hasteko asmoa dute gaueko txandarekin.

UDALTZAIN GEHIAGO

Jakina, udalaren asmoak betetzeko udaltzain gehiago behar dira, eta udala horretan ari da orain.

Oraingoz, bost udaltzain

berri hartuko ditu, hori onartu zen-eta pasa den urteko aurrekontuan. Orain ari dira udaltzain berriak hartzeko azterketak egiten, eta pare bat aste barru izendatuko dituzte.

Hori egin eta gero, udaberri aldean, beste sei udaltzain hartzeko azterketak egingo ditu udalak. Deialdia egin eta lehiaketa deituko du.

LAUBIDEKO APARKALEKUAK

Herria zaintzeaz gain, udaltzainen lana izango da, era berean, Laubideko aparkalekuak zaintzea. Izan ere, beste leku batzuetan moduan, Mondragoen kamera bitartez zainduko dira Laubideko aparkalekuak. Halaxe egitea erabaki zuen udalak, eta 2001. urteko aurrekontuan onartu da hori egin ahal izateko diru partida bat. Kamera horiek gau eta egun egongo dira piztuta, eta udaltzain baten ardurapean egongo dira.

Segurtatu hobeto zure autoa
Segurtasun osoz



Zure bizitza kalitatea segurtatzen dugu

Garibai Etorbidea, 16 • Tel.: 943 79 89 00 / 943 79 67 22 • Arrasate Pasealekua, 37 • Tel.: 943 79 71 31 / 943 77 03 04

HAMABI PAILAZO ARATUSTEAK JANZTEKO



IKASLEAK, AKTORE

Aktore eta aktorea galantak daude Musakolako Herri Eskolan. Joan den asteazkenean *Hau desastrea*, *Ipotxak* eta *Amona beti marmarka* lanak antzestu zituzten. Lehenengo ikasleek ikusi zituzten antzezlan horiek, ondoren gurasoek.



Aratuzteak ate joka ditugu, eta, betiko moduan, kartelak hartu die aurrea. Horra hor lehiaketan aukeratutako kartela. Ana Maria Landa arrasatearrak irabazi du lehiaketa, bigarren aldiz, gainera, 1991n ere berak egin zuen-eta aukeratutako kartela. Arrasaten bazter guztietan ikusiko dugu Ana Mariaren lana.



Txaro Carrizo

ESLU

LASER
L'épilation

GUSTURA EZ BAZAUDE
%100
DIRUA ITZULIKO DIZUGU

LASER BIDEZKO BEHIN-BETIKO LEHENENGO DEPILAZIO METODOA

- ▲ Gizon zein emakumeentzako, gorputzeko edozein ataletan.
- ▲ Minik gabekoa eta efekturik ez daukana.

- ▲ Bezero bakoitzari bermaturiko kontratu bat ziurtatzen zaio.
- ▲ Eskatu ezazu azterketa eta aurrekontua dohainik.

- Depilazio argizari hotzaz nahiz beroaz.
- Depilazio elektrikoa.
- Aurpegi garbiketak.

- Aurpegi eta gorputzeko tratamenduak.
- Masaiak.
- Manikura eta pedikura.

- Landutako azazkalak.
- Makilaje profesionala, ikastaroak.
- Solarium.

Olarte, 18-behea • ARRASATE • Tel.: 943 79 37 88



HURRENGO ARTE!

Marijo Deogracias, Arrasate Pressko zuzendaria, eta Maddi Trutxuelo maketatzailea joan den astean agurtu behar izan genituen. Biak ere beste nonbaitera joan dira lanera. Hori bai, ez dugu ahaztuko gure artean eman dituzten egunak. Hortaz, eskerrik asko biei, eta zorte on!



ZORIONAK!

San Balentin egunean egin zituzten urteak bi lehengusina hauek: Jone Etxeberriak, 15, eta Ainhoa Barreirok, 7. Akaso, gazteegiak izango dira maiteminduen eguna ospatzeko, baina urtebetetzea, behintzat, ondo baino hobeto igaroko zutela espero dugu. Zorionak, familiaren partetik!



BATA ALGARAKA, BESTEA FORMAL-FORMAL

Bi arrasatear ezagun egunkarietako orrietan aurkitu ditugu egunotan, arrazoi desberdinak tartean. Joserra Agirreurreta, Gatzagakako alkatea, barrez lehertu beharrean egon zen Bertso Eguneko xebebrekeriekin, eta non, eta Egunkariako azalean agertu zen. Askoz ere serioago agertu zitaigun Imanol Etxeberria futbolaria hizkuntza akademia baten. Dirudienez, Athleticeko jokalaria euren euskara findu guran dabilta.



Txotx egin!

Astelehenetik asteazkenera enkarguz

Ostegunetik igandera zabalik

Arraga auzoa
Tel.: 945 44 53 85
ARAMAIO

DEKORAZIOA

Zoruak • Lijatu eta barnizatuak •
Erradapiak • Leihoak • Ateak •
PVCKo leihoak •
Aluminiozko leihoak •
Eskailerak • Armairu enpotratuak...

GREMIOEN KOORDINAZIOA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 20 • Faxa: 943 77 11 20

DIEGO GARCIA (DRAGON BLANCOKO KIDEA)

«Jendeak bultzatzen du»

Real Madril futbol taldeko hainbat zalek taldea sortu zuten pasa den urtean Mondragoen. Dragon Blanco izenarekin bataiatu eta ibilbideri ekin zioten. Gaur egun, 80-90 bazkide dira taldean. Gu euretariko batekin izan gara: Diego Garciarekin, hain zuzen ere. Hara zer kontatu digun:

— Nolatan sortu zenuten taldea?

— Hasieran, Bergarako Mahonera zale taldearen partaide ginen, baina taldeko kide batek iruzurra egin zuen. Orduan, banatzea erabaki genuen.

1999ko abenduan geure kabuz hasi ginen, eta 2000. urteko martxoan jaio zen Dragon Blanco. Hortaz, datorren hilean urtebete egingo dugu.

— Zergatik zarete Madril-zaleak?

— Nire ustez, Real Madril munduko talderik onena da, horregatik gara Madrilekoak. Begira, duela gutxi mendeko talde onenaren saria eman zioten...

— Zale talde moduan zer egiten duzue?

— Urtean egutegi bat presatzen dugu, bazkideendako

interesgarrienak edo ikusgarrienak izan daitezkeen partidak aukeratuz; eta gero, autobusa antolatu eta haraxe joaten gara. Martxoaren 4an, adibidez, Real Madril-Barça ikusterera goaz; eta, bide batez, bidaia guztietan egin dugun moduan, egun guztirako bidaia antolatu eta turismo apur bat egiteko aprobetxatuko dugu.

— Gogoratzen duzuen unerik goxoena?... Eta goibelena?

— Zazpigarren eta zortzigarren Europako Kopa irabazi genuenean, baina, bereziki, zazpigarrena irabazi genuenean; horixe izan zen unerik goxoena.

Une goibelak, osterata, taldeak galtzen dituen aldi guztiak izaten dira. Adibidez, pasa den domekan Athleticen kontra galdutako partidak min eman zigun.

— Zaila da Euskin Real Madrileko zaleak izatea?

— Zail-zaila ez da; guk ez dugu arazorik izan, eta aurrerantzean ere ez izatea espero dugu. Baina, egia da ezin dugula esan hor zehar Madrileko zale-

ak garela. Jendeak gauzak nahasten ditu. Guk, adibidez, hemen ez dugu inoiz politikaren gainean berba egiten, horixe da geure arauetako bat: ez politikarik, ez banderarik...


— Zelako harremana duzue inguruko zale taldeekin?

— Euskal Herrian dauden

Real Madrileko zale taldeekin oso harreman ona dugu, urtero elkartzen gara... Besteekin, berez, ez dugu harremanik, baina, adibidez, Athletic-Real

Madril partidarako Athletic-eko bost zalerendako sarrerak geuk lortu genituen; hortaz, hasi gara hartu-emanekin.

— Zuen ustez, futbolak indarkeria bultzatzen du?



«Ez dugu inoiz politikaren gainean berba egiten, horixe da geure arauetako bat»

Indarkeria, futbolak, ez»

— Ez. Jendeak bultzatzen du indarkeria, futbolak, ez. Badaude futbola kirola ez den beste edozer gauzarekin nahasten dutenak, eta orduan sortzen dira arazoak, baina horretan futbolak ez du zeri-kusirik; jeneralean, politikarekin nahastean sortzen dira arazoak. Esaterako, talde guztietan, edo gehienetan, behintzat, Real Madrilen barne, zale talde berezi bat dago, eta nire ustez, pertsona horiek futbola “apurtzera” joaten dira, ez kirolaz gozatzen; horiek bultzatzen dute indarkeria.

— **Zer deritsozu Real Madrili talde moduan? Eta taldearen zuzendaritza?**

— Inoiz ikusi dudana talderik onena da; lehendik zeukan taldea indartu egin da eta egindako fitxaketak ere onak izan dira. Azken 10-15 urteotan egon den talderik onena da.

Zuzendaritzarekin ere oso pozik gaude. Pasa den domekan, adibidez, harrera berezia egin ziguten Abando hotelan.

Orain dela urtebete hartu zuen taldearen lema zuzendaritza berriak, eta gustura gaude; gerora begira ere lan ona

egingo dutelakoan gaude.

— **Fitxatuko zenukete jokalariren bat?**

— Zidane oso ona da, Joseba Etxeberria, Agustin Arantxabal... jokalaria onak badaude. Gainera, nik beti esan dut jokalaria tokian tokikoak izan behar direla.

— **Baduzue zerbait irabazteko? Zerbaitek egiten dizue min berezirik?**

— Irabazteko ezer ere ez zaio geratzen Real Madrili. Min egiten digun pertsona bat, ostera, Gaspar da; zirikatzen

ibiltzen da beti...


— **Zelan hartzen zaituzte madrildarrek han?**

— Oso ondo. Euskal Herrian dagoen Real Madrilen zale taldea garela jakiten dutenean, oso ondo hartzen gaituzte.

— **Zerbait gaineratu gura baduzu...**

— Jendeari esan gura dion futbolaritza taldea garela eta hementxe egongo garela interesa duen edozeinendako; geure ateak zabalik daude, esan bezala, edozeinendako.

ELKARRIren HITZALDIA



Bake Konferentzia
bultzatuko dugu
gauzak aldatzen hasteko aukera

Hizlaria: Jonan Fernandez
Otsailak 20, martitzena
Arratsaldeko 7,30etan
Monterronen

Aurten, parte hartzaile gehiago

AED pozik dago XIV. Arrasate literatur lehiaketek aurten izan duten oihartzunarekin. 178 lan aurkeztu dira aurten, iaz baino gehiago.

Ipuin, poesia, komiki, bertso-paper, irrati erreportaje eta euskalki grabaketak lantzen dira. Urtero legez, aurten ere ipuin asko jaso dira: 82; baina, oraingoan, beste arloetako esku hartzea handiagoa izan da: 35 poesia, 33 komiki eta 24 bertso-paper jaso dira.

Apirilaren 5ean izango da sari banaketa.

Lau ikastaro aukeran

Literatura eta musika dira Udaleko Gazte sailak antolatu dituen lau ikastaroetako elementu nagusiak. Alboka eta txalapartakoak hasiak dira, baina izen ematea zabalik dago. Bietan ere hastapen eta sakontze mailak landuko dira.

Hasteko daude euskal dantza eta literatura ikastaroak. Dantzen Lore Gazteak emango du, martxoaren 2tik San Joanak arte, egubakoitzero. Literatura tailerra martxoaren 15ean hasiko da, eta Jon Alonsok zuzenduko du. Gogoratu izen emate epea zabalik dagoela, eta Gazte Bulegoan izango dituzuela argibideak.


Kaldererorik ez, sardina bai

Badatoz aratusteak, baina antolatzaileak saiatu diren arren, kaldereroen desfilerik ez da izango azkenean.

Horixe izan behar zen aurtengo berritasun eta erakarpen handiena. Gipuzkoako beste herri batzuetan kaldereroen irteerak badu jarraipenik, baina Arrasaten ez du tradizio handirik izan. Aratusteak iragartzen dira horren bidez. Ijitoz jantzitako talde bat kalerik kale joaten da, musika banda lagun duela, eta jendeak dirua botatzen die leihotik, haiek pasatzen direnean. Baina, Mondragoen noiz edo behin baino ez da egin halakorik.

ASTIRIK EZ

SUDCek izan zuen ekintza hau egiteko burutapena, aratusteei bizigarria emateko.



Aratuste-martitzenerako sardina egiten ari dira.

Orain hiru hilabete hasi ziren antolaketa lanetan, eta 90 bat lagun hitza emanda zeuden esku hartzeko. Azkenean, baina, bertan behera utzi behar izan dute, asti falta dela-eta.

Kaldereroek huts egin duten arren, aratusteetako sardina, behintzat, hortxe izango dugu, amaiera emateko. SUDCekoak oraintxe ari dira sardinari azken ikutuak ematen.



Onenari, 10.000 pezeta

Arrasateko Motorzale Elkarteak motorren XII. kontzentrazioa egingo du maiatz erdialdean. Ordurako, aurtengo marrazkia edo ikurra aukeratzeko lehiaketa antolatu du elkarrekin. 10.000 pezeta eta oparia jasoko ditu irabazleak.

Zuri-beltzean egindako marrazkiak eskatzen dira. Asto eta motor bat derrigor agertu beharko dira. Marrazki guztiak euren egoitzara bidali beharko dituzue: Gipuzkoa etorbideko 47. zenbakira. Martxoaren 2an itxiko da epea.

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tel.: 943 79 31 99 ARRASATE

**HIES
BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tel.: 943 79 14 16
ARRASATE



Bonaventure • Diesel
Pepe • Levis

Otalora, z/g Behea ARRASATE
Tel.: 943 79 11 72

EGUS (MUSIKARIA)

«Ordenagailuak badu bere alde txarra»

Alberto Eguskiza, Egus, arrasatearra da, baina orain Bartzelonan bizi da. Han puri-purian dago berak jorrazten duen musika mota: ordenagailu bidez egindakoa, alegia. Teknika horrekin osatu du *Gaueko Beat* izeneko demoa. Bost abesti eskaintzen dizkigu, bakoitza bere nortasunarekin, baina, hori bai, Euskal Herrirako soinu original eta bitxiekin.

— Zure demo hau nahiko ezohikoa da. Zelan deskribatuko zenuke?

— Nik neuk ere ez nuke jakingo definitzen, musika niretako egiten dudalako. Abesti guztiak nahiko desberdinak dira. Denetarik dago: soinu sintetikoak, gitarra asko...

— Zure lehenengo diskoa da?

— Ez, badago beste bat, baina ez dago kalean. Orain, berri bat egiten nabil, eta 15 bat egunean nahastuta egongo da. Izugarri gustatuko litzaidake hori ezagutaraztea.

— Musika guztia ordenagailuz egin duzu...

— Bai, baina ordenagailua tresna besterik ez da. Disko honetako abesti batzuek ordenagailua dute ardatz, bai, baina beste batzuetan gitarra asko dago, bestelako soinuak daude... Ordenagailua ez da ezinbestekoa.

— Zaila da ordenagailuz musika egitea?

— Ez. Ordenagailuaren bidez edozein gauza egin dezakezu, baina horrek ere badu bere alde txarra, izan ere, ideiak dira garrantzizkoenak. Musika asko saltzen da ordenagailuarekin lantzeko prestatuta, eta edozeinek har dezake eta musika-edo egin; horregatik diot baduela bere alde txarra.



Jon Ozaeta

— Akaso, hemendik urte batzuetara musika guztia ordenagailuz egingo da.

— Bai, ordenagailuak izugarri errazten duelako lana. Diseinuan bezala, iraultza hori gertatuko da. Baina, azken baten, musika bihotzaz edo buruaz egiten da.

— Euskal Herrian badugu musika mota horren tradizioirik?

— Askorik ez; ni Bartzelonan bizi naiz, eta hemen musika horrek onespén handia du. Dena dela, Euskal Herrian musika kultura aberatsa dago, eta, poliki-poliki, musika egiteko modu berriak euren lekua hartzen joango dira.

— Ordenagailuz egindako musika bakalaoarekin identifikatzen da.

— Ez nator bat. Niri, bakalaoa ez zait bat ere gustatzen. Technoa, aldiz, bai.

aste gazte

■ DIRU LAGUNTZAK

• La Caixaren laguntzak Frantzia, Alemania, Erresuma Batua, EEBB, Kanada eta Japonian graduatu ondoko edo doktorego ondoko ikasketak osatzeko, lizentziadunendako. Epea: martxoaren 30a, maiatzaren 15a eta ekainaren 29a.

■ LANA

• Disneyland Parisen lan egiteko eskaintza, garbiketa, salmenta eta zerbitzuetan lan egiteko. Epea: otsailak 22.

• BBKn lan egiteko 130 postu bete gura dira, unibertsitate titulu edo Lanbide Heziketa titulu-dunendako deialdia. Epea: otsailak 23.

• Eguaztenero jasotzen dugu asteburuan hainbat egunkaritan azaltzen diren lanpostu iragarkien bilduma. Informazioa gura baduzu, pasa zaitez bulegotik.

■ IKASTAROAK

• Zeramika ikastaroa Loixe Taldearen eskutik. Martitzen eta eguenean, 19:00etatik 21:00etara, otsailaren 20an hasi eta San Juanak arte.

• Hezkidetzeta eta euskara suspertzaile ikastaroak Donostian, Utxintxa eskolak antolatuta. Epea: otsailak 23.

■ ESKI IRTEERAK

• Besaide Mendizale Elkarteak Formigalerako eski irteerak antolatu ditu, urtarrilean hasi eta martxo arteko asteburuetarako. Ikastaroak egiteko diru laguntzak ikasle eta langabeendako, Gazteria Sailaren eskutik.

■ TXARTELAK

• Nazioarteko Txartelak (ikasle, irakasle, gazte, aterpetxe) egiten ditugu Gazte Bulegoan.

Argibideak:
GAZTE ZERBITZUA
☎ 943 77 00 65

«Ordenagailuak izugarri errazten du lana. Baina, azken baten, musika bihotzaz edo buruaz egiten da»



RENAULT

AUKERA EZIN HOBEA



MEGANE EXPRESSION 1.6 16V 110 CV

Aire girotua, ABS
Gidariaren, bidaiariaren eta
alboetako aire-poltsak
Pintura metalizatua
SAT irratia
2.195.000 pezeta*
13.192,22 euro*
8 auto aukeran



MEGANE COUPE RXI 1.6 16V 110CV

Aire girotua, ABS
Gidariaren, bidaiariaren eta alboetako aire-poltsak
Aluminiozko llantak
Pintura metalizatua
SAT irratia
Alerioa
2.190.000 pezeta*
13.162,17 euro*
5 auto aukeran



SCENIC RT 1.9 DCI 105 CV

ABS, 4 aire-poltsa
Lagunduriko direkzioa
Itxigailu zentraliztua
Kristal-jasogailu elektrikoa
Pintura metalizatua
SAT irratia
2.540.000 pezeta*
15.265,71 euro*
6 auto aukeran

Orain, estra guztiak
seriekoak dira
**Bilatu zure
izarra**



CLIO RT 1.2 3 ate

Gidariaren eta bidaiariaren aire-
poltsak
Lagunduriko direkzioa
Itxigailu zentraliztua
Kristal-jasogailu elektrikoa
1.350.000 pezeta*
8.113,66 euro*
7 auto aukeran



LAGUNA RXE 1.9 DCI 110CV

Klimatizagailua, ABS
Gidariaren, bidaiariaren eta alboetako aire-
poltsak
Aluminiozko llantak
Pintura metalizatua
CD kargagailua
Narruzko eserlekuak
3.225.000 pezeta*
19.382,64 euro*
5 auto aukeran



SCENIC RX4 2.0 16V 140 CV

Klimatizagailua, ABS
Trakzioa lau gurpiletan
Gidariaren, bidaiariaren eta
alboetako aire-poltsak
Aluminiozko llantak
Pintura metalizatua
CD kargagailua
3.325.000 pezeta*
19.983,64 euro*
4 auto aukeran

*Prever plana barne.
Posible da modeloak eta iragarritako autoak bat ez etortzea.

MECA

Erakusketa eta tailerra: Amillaga, 5. BERGARA. Tel.: 943 76 40 68

Erakusketa eta tailerra: San Andres auzoa. ARRASATE. Tel.: 943 71 24 72

FUTBOLA
Etxean ezin,
kanpoan erraz



Talde nagusia oso fin ez dabilen arren guztia ez da txarra Atxabalpen. Gazte mailako taldeak 6 eta 1 irabazi zion Antonianori, eta honez gero segidan irabazten duten bederatzigarren partida da. Saillkapeneko lehen postuan daude eta bigarrena 5 puntutara dago. Segi horrela mutilak!!

SASKIBALOIA
Nahi eta ezin



Cafes Aitonaren aurka neurtu behar izan dituzte indarrak etxeko jokalariek, eta aurkari gogorra izateaz gain arrasateko entrenatzaileak lesioak direla eta generalean baino jokalaria gutxiago izan ditueskura. Kanpoko taldea nagusi izan zen markagailuan, baina partida azken laurdenean erabaki zen. Arrasatek markagailuari buelta emateko asmotan aurrera egin zuen, eta horren ondorioz defentsako hutsuneak ederki aprobetxatu zituzten Cafes Aitonakoek. Azken emaitza 85-68.

ERRUGBIA
Bide onetik



Arrasateko jokalariek Elorrioren aurka neurtu behar izan zituzten indarrak, eta beste behin neurketa gogorra izan zen. Lehen zatian berdintasuna izan zen nagusi, eta bigarren zatian erabaki zen norgehiagoka. Entsegu bat eta ondorengo transformazioak abantaila eman zion Arrasateko taldeari, eta ondorengo minutuetan markagailuari eusteko lenetan aritu ziren. 3 eta 13 gailendu ziren etxeko mutilak, eta jadanik jarraian lorturiko bostgarren garaipena da.

ATLETISMOA
Kros txapelketa



Arabako Laudion jokatu zen Euskal Herriko XXXVII. Kros txapelketa, eta Arrasatek izan zuen ordezkariarik. Emakumezko beteranoetan Maria Jose Gilek bederatzigarren postua lortu zuen, eta gizonezko beteranoetan Javier Mentxaka hamargarren helmugaratu zen.

Emaitzak

SASKIBALOIA

- **Nagusiak:**
Cafes Aitona 85 - Kenci Arrasate 68
- **Kadete neskak:**
Inter Intxaurren A 51 - Kenci Arrasate 27
- **Kadete mutilak:**
Kenci Arrasate 56 - Zarautz 46
- **Juniorrak:**
Kenci Arrasate 61 - BKL 91

FUTBOLA

- **Lehen erregionala:**
Orio 0 - Mondra 3
- **Lehen erregionaleko neskak:**
Arrasate 5 - Urki 0
- **Lehenengo gazteak:**
Arrasate 6 - Antoniano 1
- **Ohorezko kadeteak:**
Arrasate 2 - Eibar 1
- **Bigarren gazteak:**
Arrasate 2 - Antiguoko 1

Jokatzekoak

FUTBOLA

- Zapatuan
- **Erregional neskak:**
Mondra - Zestoa
16:00etan.
 - **Ohorezko infantilak:**
Mondra - Aizkorri
12:00etan.

SASKIBALOIA

- Zapatuan
- **Seniorrak:**
Kenci Arrasate - Finca Lasalle
18:00etan.

ESKUBALOIA

- Domekan
- **Seniorrak:**
Arrasate - Leizaran
12:00etan.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.
Lorazaintzako mantenimendua orohar.
Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.




Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



Danel Ayastui

SAN VIATOR SASKIBALOI TALDEKO ARDURADUNA



Eskola Kiroleko saskibaloi arduraduna izateaz gain, bigarren urtez ari da San Viator B talde gazteari saskibaloia irakasten, eta lan erraza ez den arren, gustura egiten du. Berarekin batera Kenci Arrasateko hainbat jokalaria ari dira entrenatzaile lanetan, eta batzuetan serio jarri behar direla aitortzen digu Danelek, kirola jolasa baino gehiago da eta.

☞ **Gaurko gazteek behar adina kirol egiten dute?**

Ikastolak saiatzen dira gazteen artean kirola sustatzen, eta gure lana ez da bakarrik saskibaloia irakastea; gazte horiek kirolean murgiltzea ere gure esku dago. Hala ere, gaur egungo gazteek ez dute kirola aisialdi bezala hartzen, eta izerdia botatzea baino nahiago izaten dute Play Station-ean jolastea.

☞ **Zenbat talde daude?**

Momentu honetan, bost taldek jokatzen dute saskibaloian, eta orain arte ez bezala, mutil baino neska gehiago dago kirol hau praktikatzen. Bost talde horiek ordezkatzeko dute Arrasate, partidak Deba-goienerako beste ikastola batzuen aurka jokatzen dituzte eta.

☞ **Gazte maila hauetan zer da garrantzitsuen?**

Kirol guztietan dago lehiakortasuna, eta hori gazte mailetan ere nabaritu egiten da, baina guk ez diogu horrenbeste garrantzia ematen. Maila hauetan garrantzitsua da taldeko lanean jokatzen irakastea.

☞ **Hortaz, entrenatzaile eta hezitzaile lana betetzen duzue.**

Bai, kirola oso tresna baliagarria da pertsona baten heziketarako. Irakasleek gazte hauen heziketaren atal bat betetzen dute. Etxean ere heziketa jasotzen dute, eta hona etortzen direnean guri dagokigu lan hori betetzea. Askotan ez da batere erraza izaten, ez zaituzte irakasle moduan ikusten, eta batzuetan gogor egin behar zaie, bestela errespetua galdu eta gura dutena egingo lukete.

Asteburuko hitzorduak Otsailak 16 eta 17, egubakoitza eta zapatua

AURREKIROLA (BENJAMINAK)

☞ **ATLETISMO TXAPELKETA**

Zapatua
Jturripen

- 10:00** Erguin
Merced A
San Frantzisko Xabier D
Merced B
San Frantzisko Xabier C
San Viator A
San Frantzisko Xabier A

☞ **ESKU PILOTA**

Zapatua
Uarkapen

- 10:00** San Frantzisko Xabier B
San Frantzisko Xabier S T
San Viator B
San Frantzisko Xabier E
Musakola
Aramaio
San frantzisko Xabier U

MULTIKIROLA (ALEBINAK)

☞ **ARETO FUTBOLA**

Gazteluondoa

MUTILAK

- 9:30** Erguin - S.F. Xabier U
10:15 S.F. Xabier A1 - San Viator B
11:00 S.F.Xabier A2 - Merced
11:45 Musakola - Aramaio
12:30 S.F. Xabier B - San Viator A

☞ **SASKIBALOA (INFANTILAK)**

Egubakoitzean

San Viatorren

NESKAK

San Viator B - San Viator A

MUTILAK

S.F. Xabier - San Viator

☞ **FUTBOLA**

NESKAK

Egubakoitza

Oñati

17:15 Arrasate - Aoz 1A

Zapatua

Atxabalpe

9:00 S. F. Xabier - Almen

Aretxabaleta

9:00 Kurtzebarri - La Merced

MUTILAK

Almen

10:15 Almen - La -Merced

Bergara

9:15 Aranzadi - S.F. Xabier

Emaitzak

A taldea

Katxiporra 4 - Goma2 3
Lasagabaster 2 - Aurrera Bolie 3
AC Surcos 6 - Bikain 6
Txeyenex 4 - Leya 6
K Alpagat 4 - Serengeti 2
IKP 1 - Dribling 5

B taldea

New Makai 3 - Usotz Potroak 9
Rayo Aldeano 4 - AT Celaya 4
KJ Basati 7 - DKB 7
You Know 4 - Betrayar 3
Etixerat Taberna 7 - AKTA 4
Alai Gozokiak 5 - Abocajarro 3
Fragel Gol 3 - Txotx 2
Kamasutra 4 - EPEH 4
Full Duplex 1 - SASS T 2
Pepelus 0 - Iriztu 1

Sailkapenak

A taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Lasagabaster	10	8	1	1	53	26	17
YK Azkena	10	7	2	1	36	25	16
Aurrera Bolie	10	7	1	2	46	23	15
Txapime Dribling	10	7	1	2	46	26	15
Komando Alpagat	10	7	1	2	44	30	15
AC Surcos	10	6	2	2	42	38	14
IKP	10	6	1	3	40	42	13
Serengeti	10	5	3	2	35	29	13
Bikain Akademia	10	4	4	2	47	35	12
Goma2	10	4	3	3	49	36	11
Katxiporra	10	5	1	4	41	47	11
Kanp. Harrobia	10	3	1	6	27	40	7
Leya	10	2	3	5	25	31	7
Makanaki	10	2	3	5	25	31	5
Betrayar	10	1	2	7	41	53	4
AL Ion	10	1	1	8	28	71	3
Txeyenex	10	1	0	9	21	50	2
The Pippol	10	0	0	10	7	21	0

B taldea	PARTIDAK				GOLAK		PUNT.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Aide	Aurk.	Guzt.
Etixerat taldea	10	9	1	0	73	22	19
Iriztu	10	8	1	1	40	16	17
AT Celaya	9	7	1	1	42	28	15
Rayo Aldeano	10	5	2	3	59	38	12
Kamasutra	10	5	2	3	43	33	12
Pep.Inserso.com	10	6	0	4	37	28	12
Fragel Gol	9	6	0	3	36	31	12
Irati STS	9	5	1	3	48	26	11
Usotz Potroak	9	5	1	3	43	16	11
KJ Basati	9	4	1	4	46	34	9
EPEH	9	4	1	4	28	32	9
DKB Kobate	10	3	2	5	32	44	8
AKTA	10	3	1	6	38	40	7
Full Duplex	9	3	1	5	30	34	7
Alai Gozokiak	9	2	1	6	25	44	5
Txotx	20	2	1	7	17	48	5
New Makai	9	2	0	7	17	59	4
Sas T	10	1	1	8	15	58	3
Abocajarro	9	1	0	8	26	62	2

ANTOLATZAILEEI

Behin baino gehiagotan salatu izan dugu antolatzaileen partetik hutsegite edo hanka sartzeren bat. Ezer salatzen hasi aurretik, eskerrak eman behar-ko genizuke txapelketa hau antolatzeagatik, lan nekeza da eta afori batez da nahiko ordain.

Argi dago, egitekotan, gauzak ondo egin behar direla, eta alde horretatik orain arte egindako lana txukuna izan da. Orain, esker bat doakizue, txapelketa amaieran guztia ongi joan bada, mila esker emango dizkizuegu, baina egurra eman behar denean ere halaxe egingo dugu.

ZIGORRA

Jokalariek ere ez dira beti fin ibiltzen, eta oraingoan kale egin dutenak Sas T taldekoak izan dira. Domeka goizean Kamasutra eta EPEHren arteko partida epaitu beharra zuten, eta ez zen inor agertu. Horregatik, taldeak fidantza galdu-

ko du eta bi puntu gutxiago izango ditu. Baina... zelan? Ez daukanari, ezin kendu!!



Hurrengo partidak /11. jardunaldia

Otsailak 17, zapatua

Zaldibar	Epailea
9:50 Goma2 - AL Ion	(AKTA)
10:50 AKTA - Alai Gozokiak	(AL Ion)
12:00 Etixerat - Irati STS	(Alai Gozokiak)
13:00 KJ Basati - Full Duplex	(Irati STS)
14:00 Fragel Gol - Sass T	(KJ Basati)
15:00 Betrayar - Kanp Harrobia	(Sass T)
16:00 Txotx - Abocajarro	(Kanp Harrobia)
17:00 Katxiporra - Dribling	(Txotx)
18:00 K Alpagat - Bikain Akademia	(Dribling)

Iturripe A

14:50 Aurrera Bolie - Serengeti	(Rayo Aldeano)
16:00 Rayo Aldeano - Usotz Potroak	(Aurrera Bolie)


Iturripe B

14:50 YK Azkena - IKP	(Leya)
16:00 AC Surcos - Leya	(YK Azkena)

Otsailak 18, domeka

Zaldibar	Epailea
10:50 EPEH - Iriztu	(New Makai)
12:00 DKB Kobate - New Makai	(Iriztu)
13:00 Kamasutra - AT Celaya	(DKB Kobate)

Atsedena: Pepelus, Txeyenex eta Lasagabaster.



Salmenta eta zerbitzua

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

UGARTE

Industria hornidurak

Arrasate pasealekua
Tel.: 943 -79 83 96 / 943 - 79 23 00
Faxa: 943 - 793412

M


Altzariak
Diseinua
Apainketa

ARENAZA

Bizkai, 1 • ARETXABALETA
Tel.: 943 79 08 07

Ospatu **Egunkaria** ren harpidetza sagardotegian bazkalduz

(2 lagunentzako bazkaria)




**AÑOTA
TOLARE
SAGARDOTEGIA**

☎ **943 81 20 92**
AZPEITIA

Egin zaitez harpidedun* eta EGUNKARIAK txotx egitera gonbidatuko zaitu.

Harpidetzaren abantailak

- ✓ EGUNKARIAK egiten dituen **promozioetan abantailak** izango dituzu.
- ✓ Harpidedunaren txokoan **milaka sari eskura.**
- ✓ **Goizeko 08:00ak aurretik** jasoko duzu EGUNKARIA etxean, lantokian...



Orain 3.500 pta. baino gutxiago kostako zaizu hilean.

Deitu ORAIN !!

☎ **943 300 222**

* Otsailaren 9tik 19ra

Egunkaria


Irratiko artxiboa arakatzen

Arakatzen Eguenero 21:00etan

Irratiak baditu dagoeneko urte batzuk; gure estudioetatik pasatu dira, hortaz, hamaika lagun eta irratsaio. Hauetatik batzuk antenan daude gaur egun, beste batzuk, ostera, irratiaren historiaren bidean geratu dira. Atzean gelditu diren horietan berreskuratzea da, hain zuzen ere. Arakatzen saioaren helburua. Eguenero, 21:00etan. Dagoeneko, asmo horrekin entzun ditugu, pasa den azaroaz geroztik, Kutrelax, Badok Hamaika, Caravanserai, Txerrendantza, Zoroklasikoak edo arrazakeriaren gaineko mahai ingurua; baina, oraindik ere baditugu hainbat gordeta. Hortaz, gustura entzundako elkarrizketaren bat gogoan baduzu, beldur barik proposatu.

Jonan Fernandezi elkarrizketa

Elkarriko bozeramailea autobusera igoko da eguaztenean. Bake konferentziak berba egingo dugu berarekin goizeko 10:15etik aurrera.



Karapaixoa, peilak, torradak,

Aratusteetan eta garizuma garaian ere badaude janari tipikoak. Horiek zelan egin diren ikasiko dugu arrasatearren sukaldeetara sartuta. Aratusteak gertu daude; hortaz, gure autobusa ere moztortzera goaz.

kontzertuak

BERGARAKO JAM ETA GO-JAMEKO KONTZERTUETARAKO SARRERAK.

Otsailak 22: **Primal Fear + Children of**

Bodon + Sacred Still (sarrera 1)

Otsailak 23: **Fromheadtoe + Zea Mays**

Otsailak 24: **Dance Party**

2

sarrera egun bakoitzerako zozketatuko ditugu. Azken eguna: datorren egubakoitza. Zozketa Arrasate Irratian egingo da.

Izen-deiturak:

Tel.:

Bidalai gurera: Arrasate Press, Otalora 31 edo deitu Arrasate Irratira: **943 71 17 31**.

arrasate
irratia



ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepassoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

MARTITZENEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

EGUAZTENEAN

- 20:00 Binilordua.
- 21:00 KK2A.

EGUENEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakatzen.

EGUBAKOITZEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

ZAPATUAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro ta zu.

CE

ERRASTI KRISTALDEGIA

Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak

Olarte kalea, 47 behe Tel.: 943 79 22 55 / 943 79 14 25



**Pando
Errotuloak**

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Señalizazioak

Lonak

Erlebedun hizkiak



Joan den mende hasierara goaz aste honetako argazki zaharrek, protagonisten janzkeretan ikusten den moduan. 1916. urtean, eta tokia, San Joan Parrokiaren ate aurrea. Hain justu, Iturriotz kale aldera ematen duen ataria da.

Argazkian ikusten den moduan, bandera bat oratzen du gizona batek. Litekeena da bandera hori Gurtzearen bandera izatea. Izan ere, garai hartan, urteko zapatu guztietan ospatzen zen Gurtzea. Gaueko 10etan sartu eta goizeko 6ak arte egoten ziren eliza barruan erreztatzen. Gero, meza izaten zen. Baina, hain gau luzea pasatzea erraza ez denez, zapatuero egoten zen taldea txandakatu egiten zen: batzuk erreztatzen geratzen ziren bitartean, besteek atsedent hartzen zuten, eta aldeantzez.

Erretratuko hirukotea honakoa da, ezkerretik hasita: Salome Juldain, Jose Joaquín Castañeda eta Segundo Arzamendi.

Argazkia eta berriemailea:
Teresa Zabaleta Ortubai



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55




Uribarri zeramikak



Zure etxeko txokoak janzten

Uribarri etorbidea, 22 • ARRASATE
Tel.: 943 77 11 63

Ongizate sentsazioa.



Ehun nobledun altzariak, kolore lasaigarriekin, sentipenek laztantzen dituzten formez beteta.

Barne-barneko ongizatea. Hau guztia TODOMUEBLE KABIAk eskainitako aholkularitzaren eta bertako profesionalen arretari esker eta, jakina, TODOMUEBLE KABIAk finantzazioan eskaintzen duen formula bikoitzarengatik: Sei hilabetetan, eskura ordaintzeak dakarren deskontuarekin.

24 hilabetetan, interes barik eta 6. hilabetetik aurrera ordaintzen hasita. Gehien komeni zaizun sistema!



ZERBITZU
HOBEA
KALITATE
PREZIO

TODOMUEBLE
DALLA QUILA
Kabia

Ordutegia: 09:30etik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
Zapatuak barne.

Gipuzkoa Etorbidea, 28
Tel. 943 792 770 • ARRASATE